

# Ikastaroaren ezarpenak, eGelan (Moodle 2.7)

Irakasleentzako eskuliburua

2. bertsioa (2016/09/19)

Honako eskuliburu hau Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Campus Birtualak landu du.

Lan hau Creative Commons-en Nazioarteko 3.0 lizentziaren mendeko Azterketa-Ez komertzial-Partekatu lizentziaren mende dago. Lizentzia horren kopia ikusteko, sartu <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/> helbidean.




## Edukiak

|                              |    |
|------------------------------|----|
| Ikastaroaren ezarpenak ..... | 3  |
| Orokorra .....               | 4  |
| Deskribapena .....           | 5  |
| Ikastaro-formatua.....       | 7  |
| Itxura.....                  | 11 |
| Fitxategiak eta igoerak..... | 12 |
| Osaketa-miaketa .....        | 12 |
| Taldeak .....                | 13 |
| Rolei izena aldatu .....     | 15 |


## Ikastaroaren ezarpenak

Gure ikastaroaren ezarpenak kudeatu ahal izateko, pantailaren ezkerreko zutabean, edo laburtuz gero, alboko barran, ageri den **"Kudeaketa"** blokean txertatutako **"Ikastaroaren kudeaketa"** menuko **"Ezarpenak editatu"** estekan sakatu beharko dugu.



1. irudia: "Kudeaketa" blokea


Behin esteka hori sakatuta, formulario bat irekiko zaigu. Formularioa, Moodle 2.7-k dituen gehientsuenak bezala, oso luzea da. Formularioarekin errazago jarduteko, Moodlek zatika ikusteko aukera ematen digu, atalak laburtuta edo zabalduta.



2. irudia: "Ikastaroaren ezarpenak editatu" formularioa

Irudian ikus dezakegu nola eskuineko goiko aldean formulario osoa zabaltzeko aukera dugun. Era beran, "Orokorra" eta "Deskribapena" atalak oso-osorik azaltzen zaizkigu. Baina laburtu nahi izanez gero, atalaren izena sakatu besterik ez dugu egin behar.

Hurrengo irudian, formulario hau osatzen duten atalak ikus ditzakegu.




3. irudia: "Ikastaroaren ezarpenak editatu" formularioaren atalak



Formulario honetan, ezinbestekoa da "**Aldaketak gorde**" aukera sakatzea; osterantzean, egindako aldaketa guztiak galduko ditugu.

## Orokorra



4. irudia: "Ikastaroaren ezarpenak editatu" formularioko "Orokorra" atala


**Ikastaroaren ID zenbakia** eremuan, **eGELA zerbitzuaren** kasuan, GAURetik irakurriko da, eta irakasle-rola duten erabiltzaileek ezingo dute aldatu.

**Agerian** eremuak finkatzen du ea ikastaroa ikastaro-zerrendan ageri den. Hautatuko aukera "**ezkutatu**" bada, irudian ikus daitekeen bezala, ikasle-rola duten erabiltzaileek ez dute ikastarorako sarbiderik izango; irakasleek, berriz, euren ikastaro-zerrendan ikusiko dute, kolore grisean. **eGELA zerbitzuan**, agerian ez daudela sortzen dira ikasgelak, berez; era horretan, irakasleek euren ikasgeletan lan egin ahal izango dute, eta ikasleek ezingo dute bertara sartu. Ikastaroa prest dutenean, berriz, "**erakutsi**"

aukera sakatu, eta ikasleek ere sartzeko aukera izango dute. Behin ezarpen hori aldatuta dagoela, gure ikastaroa urdinean azalduko da gure ikastaro-zerrendan. Ikasleek ere euren zerrendan izango dute, eta izena sakatuz gero, ikasgelan sartzeko moduan izango dira.


**Ikastaroaren hasiera-data** eremuak zehaztuko du asteko formatua izango duen ikastarorako lehen astea zein izango den. Ikastaroko aktibitateen erregistrorako data goiztiarra ere zehaztuko du. **Inola ere ez dira kontrolatuko ikasleek ikastarora egindako sartu-irtenak.**

## Deskribapena



5. irudia: "Ikastaroaren ezarpenak editatu" formularioko "Deskribapena" atala

**Ikastaroaren laburpena** eremuak gure ikastaroaren deskribapena txertatzeko aukera emango digu, HTML editorea erabilita. Deskribapen edo laburpen hori ikastaro-zerrendan erakutsiko da. Ikastaroen bilatzailea erabiliz gero, ikastaroen izenak ez ezik, ikastaroaren laburpen-testua ere bilatu ahal izango du. Eta ikastaro-zerrendan ikusiko diren irudiak ere gehitu ahal izango ditugu. Editorearen bidez egin ahal izango dugu, edo bestela, fitxategi independente bezala, **Ikastaroaren laburpeneko fitxategiak** aukeraz baliatuta.




6. irudia: "Ikastaroaren laburpena", ikastaro-zerrendan



7. irudia: Laburpena, HTML editorearen bidez txertatutako irudiarekin


Irudietan ikus dezakegun bezala, "Laburpeneko fitxategiak" aukera erabiliz gero, irudiaren tamaina egokitu egingo zaigu. Editorea erabiliz gero, geuk egokitu beharko dugu, eskuz.

2.7 bertsioan, kategoria baten ikastaro-zerrendan, laburpenak ez dira berez azaltzen. Ikastaroari buruzko informazioa eskuratu nahi izanez gero, ikono gainean klik egin beharko dugu. Era horretan, zerrendak garbiagoak izaten dira.



8. irudia: Ikastaro-zerrenda, laburpenak laburtuta dituela

## Ikastaro-formatua



9. irudia: "Ikastaroaren ezarpenak editatu" formularioko "Ikastaro-formatua"


1) Ikastaro-formatuak zehazten du ikastaroaren orriaren diseinua.

**Formatua** eremuan lau aukera erakusten dizkigun goitibeherakoa dugu. Aukera ohikoenak, hain zuzen, "**gai-formatua**" eta "**asteko formatua**" dira, nahiz eta 16/17 ikasturtetik aurrera "gaiak fitxetan" sailkatzen aukera izango den.

- **Gaiak fitxetan** - Ikastaroaren aurkezpen orrian atal guztiak erakutsi beharrean edukia fitxen bidez antolatzea ahalbidetzen du, batetik bestera nabigatuz.



10.irudia: Ikastaroa gaiak fitxetan




10 bis irudia: Gaiak fitxetan formatuarekin fitxategiak mugitu

Ikastaro formatu hau dela eta, fitxa batetik bestera fitxategiak mugitzea ez da beste formatuetan bezain intuitiboa. "Edizioa aktibatu"rik dagoela "Fitxen ediziorako tresnak" aukeran sakatuz gero ondoko aukerak azaltzen dira (10bis irudia):

- A) (Fitxa batean dagoen eduki guztia mugitzeko) Mugitu nahi den fitxa/gaian kokatu -0 gaian izan ezik- eta ondoren zein fitxa/gaira mugitu nahi den zehaztu beharko da.
- B) (Gai/fitxa batean duden baliabideak banan-banan mugitzeko). "Ezgaitu" aukera sakatuz gero, "drag and drop" metodoa ezgaitzen da eta baliabideak fitxen artean mugitzea lortzen da.
  - **Jarduera bakarreko formatua:** Ikastaroaren hasiera-orrian jarduera edo baliabide bakar bat erakusteko (galdetegi bat edo SCORM pakete bat adibidez)
  - **Formatu soziala** - Ikastaroaren orrian, foro bat erakusten da
  - **Gai-formatua** - Ikastaroaren orria gaikako ataletan dago antolatuta
  - **Asteko formatua** - Ikastaroaren orria asteko ataletan dago antolatuta, ikastaroaren hasiera-datako lehen astetik hasita

2) **Atal kopurua** eremuari esker, bestalde, gure ikastaroan ikusgai egotea nahi dugun gai edo aste kopurua egokitu ahal izango dugu. Kontuan izan behar dugu **eGELA Zerbitzuan** ikastaroak 20 gairekin sortzen direla, berez. Beste ikasturte batetik datozen materialak kargatu ostean ikusten badugu gaiak sobera ditugula, ikastaroaren ezarpenak alda ditzakegu, eta ikusgai egon daitezen nahi dugun gai kopuru zehatza finkatu edo ikustea nahi ez ditugunak ezkutuan jarri. Era berean, ikusteko moduan jar ditzakegu hainbat gai edo aste, ikastaroan aurrera egin ahala. Bestalde, agertzen diren gaiak ez badira nahikoak, eremua aldatuko genuke, gure premietara egokitu dadin.

 2.7 bertsioan ere, ikastaroan gaiak gehitu ala ken ditzakegu, gaien diagramaren bidez. Horretarako, gure azken gaiaren atzetik ageri diren ikonoen gainean klik egin beharko dugu.




11. irudia: Diagramatik, gaiak gehitu edo kendu

3) **Ezkutuko atalak** eremuari esker, aukeratu ahal izango dugu ea ezkutuan dauden



atalak ikasleei laburtuta azaltzea edo ez azaltzea nahi dugun. Laburtuta erakutsiz gero, ikasleek jakingo dute gai batzuk ez daudela une horretan eskuragarri ikastaroan.




12. irudia: "Ezkutuko atalak laburtuta erakutsi" aukeratuta (ikasle-rolarekin ikusten dena)

Ezkutatuz gero, berriz, ikastaroaren itxura honako irudi honetan ikusten dena izango litzateke:




13. irudia: "Ezkutuko atalak ez erakutsi inola ere" aukeratuta (ikasle-rolarekin ikusten dena)



### 13. Ikastaroaren disenua


**4) Ikastaroaren diseinua** aukeraren bidez, eduki guztia aurkezpen orrian agerraraztea ekiditeko aukera eskaintzen da.

"Ikastaroaren diseinua" "Erakutsi atal bat orriko" aukeratuz gero (Ikastaroaren kudeaketa> Ezarpenak editatu> Ikastaro-formatua) bloke bakoitzaren izenburua eta bakoitzaren baitan dauden jardura edo baliabideen zerrendaketa azalduko da soilik orrialde nagusian.




13.2 "Erakutsi atal bat orriko" aukeratuta ikastaroaren itxura

Bloke bakoitzaren gainean sakatzean bere baitan dagoen eduki guztia kontsultatzeko aukera zabalduko litzateke. Bloke edo atal batetik bestera joateko behealdean azaltzen den hautagailua erabili ahal izango da.



13.3 Bloke barruan mugitzeko aukerak

## Itxura



14. irudia: "Itxura" atala, "Ikastaroaren kudeaketa" formularioaren barnean

Lehen, formulario honetan, **Gaia behartu** aukera ageri zen. eGELA zerbitzuan hori ez dago eskuragarri. Bi dira aukera hori ezabatzeko aintzat hartu diren arrazoiak: batetik, ikastaro guztiek itxura bera edukitzea bilatu da, UPV/EHUren korporazio-irudia jarrita, erabiltzaileak erraz hauteman dezan non dagoen; eta bestetik, gailu mugikorretatik konektatzen diren pertsonen gunerako sarbide egokia izan dezatela bermatzea.



Bestelako gai bat duten eta Moodle 1.9-tik berreskuratutako ikastaroak 2.7 bertsioan gai estandarrarekin azalduko dira; alegia, eGELA guneko ikastaro guztietarako gai komunarekin.

**Hizkuntza behartu** eremuarekin, berriz, ikastaroaren aukera eta menu guztiak aukeratutako hizkuntzan aterako dira.

**Erakutsi beharreko albisteak** eremuari esker, bestalde, gure ikasleek 'Berriak' foroan ikus dezaketen sarrera kopurua egokitu dezakegu; betiere, gai-formatua edo asteko formatua duten ikastaroetan.

**Kalifikazioak ikasleei erakutsi** eremuarekin, aktibitateen kalifikazioak ikasleei erakusteko edo ez erakusteko aukera izango dugu. Irakasle bati ikastaro batean ez bazaio interesatzen kalifikazioak erabiltzea, edo ikasle-rola duten pertsonen ezkutatu nahi badizkie, kalifikazioak agerrarazteko aukera desaktibatu dezake, "Ikastaroaren ezarpenetan". Baina horrek ez du galarazten bakarkako aktibitateetarako kalifikazioak erabiltzea edo finkatzea: ikasleek emaitzak ikustea galarazten du soilik.

**Aktibitate-txostenak erakutsi** eremuari esker, irakasleek erabaki dezakete ikastaroko aktibitate-txostenak ikasleei erakutsi nahi dizkieten ala ez. Irakasleek beti edukiko dute aukera txosten horietara sartzeko, partaide bakoitzaren informazio pertsonaleko orriko "**Aktibitatea**" estekatik, baldin eta "Erabiltzaileen zerrenda" goitibeherakoan "Erabiltzaileen xehetasunak" aukera hautatzen badute. Kontuan izan behar da, berez, "Laburpen" gisa ageri dela.



15. irudia: Informazio pertsonaleko orria, "Erabiltzaileen xehetasunak" aukerarekin

## Fitxategiak eta igoyerak

▼ Fitxategiak eta igoyerak

Fitxategiak igotzeko gehieneko tamaina

?

16. irudia: "Fitxategiak eta igoyerak", "Ikastaroaren ezarpenak editatu" formularioaren barnean




**eGELA Zerbitzuan**, Moodle plataformara igo daitezkeen fitxategien gehieneko tamaina 20 MBkoa da. Alabaina, irakasleak bestelako muga batzuk ezar ditzake ikastaroan zein aktibitatean, baina sekula ezingo da 20 MB baino handiagoa izan.

## Osaketa-miaketa

Ikastaro baten osaketa miazteko aukera izatea da Moodle 2.X-k dakartzan berrikuntzetako bat. Erabilera honi esker, irakasleak baldintza batzuk finka ditzakete, ikasleak ikastaroa osatu duela aintzat hartzeko. Askotariko baldintzak izan daitezke: zenbait aktibitate amaitu izana, muga-data bat jartzea edo irakasleak eskuz egin ahal

izatea.



17. irudia: "Ikastaroaren ezarpenak editatu" formularioko "Osaketa-miaketa" atala eta "Ikastaroaren kudeaketa" menuko "Ikastaro-osaketa" menua.

Aukera hori aktibatzeko, lehenik eta behin, ikastaroan aktibatu beharko dugu. Hala eginez gero, beste esteka bat azalduko zaigu "Ikastaroaren kudeaketa" menuan: "Ikastaro-osaketa". Esteka horretan klik eginez gero, gure ikasleek ikastaroa amaitu dutela aintzat hartzeko finkatuko ditugun baldintzak definitzeko aukera emango digun formulariora sartuko gara. Aukera honek daukan garrantzia dela eta, aparteko dokumentu batean ("Ikastaroaren jarraipena: osaketa-miaketa") landuta dago.

## Taldeak



18. irudia: "Ikastaroaren ezarpenak editatu" formularioko "Taldeak" atala

Moodlek taldeekin lan egiteko aukera ematen digu, bi mailatan: bat, ikastaro mailan (taldeko lana daukaten aktibitateentzat), "Ikastaroaren ezarpenak" formularioko atal honetan definitutako aukera; eta beste bat, aktibitate mailan (dagokion aktibitateak

taldeko lana eskatzen badu).


Hiru dira goitibeherakoan aurkituko ditugun aukerak

- **Talderik ez:** ikasle guztiak komunitate berekoak dira
- **Ageriko taldeak:** ikasle bakoitzak bere taldearen barnean lan egiten du, baina ikus ditzake beste talde batzuk ere
- **Bereizitako taldeak:** ikasle bakoitzak bere taldea baino ezingo du ikusi; gainerakoak ikusezinak izango dira

"Behartu talde-modua" aukeran "BAI" sakatuz gero, talde-modu hori ikastaroaren aktibitate guztietan aplikatuko da

Berezko taldekatzea. Taldekatzeak definitu ez badira, "bat ere ez" azalduko zaigu aukera bakar moduan.

Gure taldeak sortzeko, "Kudeaketa" blokea jo eta "Erabiltzaileak" aukera sakatu beharko da. Irekiko zaigun goitibeherako menuan "Taldeak" aukeraren gainean klik egingo dugu.



19. irudia: "Kudeaketa" blokea, "Taldeak"



20. irudia: Taldeak eta taldekatzeak sortu

Eta 20. irudia ageri den pantaila irekiko zaigu. Bertan, gure talde eta taldekatzeak sortu ahal izango dira.

### Rolei izena aldatu

Eremu honetan, plataformaren rolen izenak aldatu ahal izango ditugu, ikastaroan. Aldaketak izenari soilik eragingo dio; ez rolari atxikitako baimenei.

Azkenik, nabarmentzekoa da "Ikastaroaren ezarpenak editatu" formulario honetako atal guztietako aldaketak eraginkorrak izan daitezen, "**Aldaketak gorde**" botoia sakatu behar dela, ezinbestean.